

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011eko urriaren 21a. VIII. urtea. 2.294. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Inkomunikazioa pairatzen dutela kaleratu dute pertsona gorrek

Gainditzenek egunerokotasunean izaten dituzten komunikazio traben berri ematen duten panelak eta oihalak jarri ditu, Tolosan **02**



Julian Rodriguez Gainditzen elkarteko kidea, atzo, Trianguloan. I. GARCIA

Jon Altuna Lain taldeko bateria-jotzailea

«Sentimenduak adierazteko norberak bere baitan duen leihoa ireki behar du»

Villabonako Lain taldeak bigarren lana argitaratu du, 'Leihoak'; Altunak dioenez, leihoen irudia erabili dute sentimenduak adierazteko **04**



HITZA

→ **Murrizketen aurka protesta.** Leitzako institutuko eta Erleta eskolako irakasle eta ikasleek elkarretaratzera egin zuten atzo, Nafarroako Gobernuak hezkuntzan ezarritako murrizketak salatzeke. 50 bat lagun bildu ziren mobilizazioan. **07**

Ikaztegiatar batzuek kultur agenda osatu nahi dute

Gaszte talde batek 'www.ehagenda.info' webgunea sortu du; helburua Euskal Herriko kultur ekitaldiak biltzea da, eta hau elikatzeko herritarren informazioa jaso nahi dute **05**

Bengoetxea VI.a eta Barriola, finalerdietara sartzeko borrokan

Leitzarrek Lau t'erdiko partidak jokatuko dituzte asteburuan; Barriolak gaur eta Bengoetxeak etzi **07**

Tolosako EAJk dio Voith-Gorostidi proiektua legearen barruan dagoela

Jeltzaleek diotenez, udalak babesten ez dituen proiektuekin bakarrik egiten ditu kontsultak **07**

Villabonako Euskara Zerbitzuak laguntzaileak behar ditu Mintzalaguna egitasmorako.

Animatu eta informazioa eskatu 943 69 35 01 telefonoan edo euskara@villabona.net-en



Gainditzen elkarteak antolatu duen Sentsibilizazio Astearen baitan, egunerokotasunean pertsona gorrek izaten dituzten komunikazio traba berri ematen dute hainbat kartelen bitartez.

Inkomunikazioari aurre eginez

Imanol Garcia

Zortzigarren urtez antolatu du Gainditzenek, Tolosaldea-Goierriko pertsona gorren elkarteak, Sentsibilizazio Astea. Urtero bezala, San Frantzisko kalean panel batzuk jarri dituzte, gorrek egunerokotasunean izaten dituzten komunikazio oztupoak erakusteko. Horrez gain, berritasun gisa, kultur etxetik zintzilik oihal batzuk jarri dituzte, gai berdina inguruan. Bertan gorriz irudikatzen dira pertsona gorrak.

«Gure asmoa jendearengan eragitea da», azaldu du Gainditzen elkartearen Julian Rodriguez kideak. Eta badirudi pixkana lortzen ari direla: «Egun hauetako batean, nire emaztearekin San Frantziskon nengoela, jendea kartelak begiratzen ari zirela ikusi nuen. Pixkana jende gehiago gerturatu zen karteletara eta ilara txiki batzuk sortu ziren, bertan jartzen zuenari buruz hitz egiten. Oso positiboa irutzen zait hori, horrek esan nahi baitu erakusketaren eragina izaten ari dela gizarte-an».

Kartelak erakusten dute, esaterako, medikuarengana joaterakoan gorrek izaten dituzten arazoak, ez baitituzte ulertzen. Eta baita udaletxera joaten direnean, hitzaldi batera joaten direnean, «Edozein leku publikora edo pribatura joaterakoan, entzuten dutenak komunikatzen diren lekueetan ni ezin naiz komunikatu, eta gainera ez da itzultzailerik izaten», esan du Rodriguezek.

Garapen pertsonala

Gainditzeneko kidearen esanetan, «jendeak uste du ondo bizi garelara, baina ikusten ez den ezintasun bat dago hor. Ez da ikusten, baina benetan asko sufritzen dugu, inkomunikazioa sufritzen dugulako». Lanari dagokionez, gorrek bidaltzen dituzten curriculumak enpresa gehienetan



Julian Rodriguez, panel baten ondoan, telebista eta azpiztitulu hitzak esanez zeinu hizkuntzan. I. GARCIA

bota egiten dituztela esan du: «Azkenean, non lan egiten dute gorrek? Ezintasuna dutenentzako enpresetan. Eta hori ez zaigu gustatzen, horrela ezin baitugu gure burua garatu. Gure bizitzan zehar ez dugu izan zeinuen hizkuntza jakin duten irakaslerik.

Ez ditugu izan itzultzailerik. Ikasi ahal izan dugu, gure esfortzuaren bidez, eta, gero, lana bilatzerakoan, azkenean ezinduentzako enpresetan amaitzen dugu».

Gauzak asko aldatu direla eta egun eskoletan eta unibertsitatean itzultzaileak daudela dio Rodriguezek. «Gure egoera hobetzeko lanean jarraituko dugu, eta horren adibide da antolatu dugun Sentsibilizazio Astea».

Lan boluntarioa egiten dute Gainditzenen, eta baliabide gehiago eskatzen dituzte. «Ez dugu baliabiderik», esaten du Rodriguezek. «Itzultzailea behar dugu lan egiteko, eta bakarrik Sentsibilizazio Astea eta Film Laburren Jaialdia prestatzeko izaten dugu. Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari eskatu diogu, baina ez digute ezer ematen. Eskubiderik ez bagenu bezala sentitzen gara».

Ekitaldi betetako eguna

Sentsibilizazio Astearen baitan, egun nagusia bihar izango da. Hasteko, gorren eta entzuten dutenen arteko estropada egingo da. Ondoren, Gipuzkoako Gorren Elkarteari, bere 50. urteurrenean omenaldia egingo zaio.

Arratsaldean, Leidor aretoa izango da elkargunea. Elixir Films-en ikus-entzunezkoa emango da. Tailer bat egin zen bertan, pertsona itsuekin eta gorrekin. Itsuek audioa landu zuten eta gorrek irudiak. Film labur bat egin zen eta hori erakutsiko da. Horren ondoren, Gipuzkoako Gorren Elkarteari buruzko bideo bat emango da. Eguna amaitzeko, Madrilgo El Grito antzerki taldeak zeinu hizkuntzen bidez *El metodo Gronholm* antzezlan taularatu du. Itzultzaile bat izango da zeinu hizkuntza ezagutzen ez dutenentzat.

↓ Egitaraua

URRIAK 22, LARUNBATA

- **11:00.** Adiskidetasuneko traineru estropada Ori ibaian. Ondoren, txistorra eta lsastegi sagardotegiko sagardoa banatuko da.
- **12:00.** Omenaldia Gipuzkoako Gorren Elkarteari. Besteak beste, izaskun elkartearen bazkaria egingo dute.
- **18:00.** Elixir Films-en ikus-entzunezko lantegiari buruzko dokumentala Leidor aretoan. Ondoren, omenaldia Gipuzkoako Gorren Elkarteari, bere historia-aren gaineko bideoa proiektatuz.
- **19:00.** El Grito taldearen *El metodo de Gronholm* zeinu hizkuntzan egindako antzezlan Leidor aretoan.

ERAKUSKETAK

- **Urriaren 23a arte.** San Frantzisko etorbidean eta kultur etxean, gorrek dituzten komunikazio trabei buruzko erakusketak.
- **Azaroaren 12a arte.** Jose Enrique Zeberio eta Jon Balentziaga artisten erakusketa Aranburu jauregian.

Film laburren jaialdia

Behin Sentsibilizazio Astea amaituta, hurrengo ekimena azaroaren 11n eta 12an izango da: Zeinuen Hizkuntzan egindako Nazioarteko II. go Film Laburren Jaialdia izango da. Mundu mailan horrelako jaialdi gutxi daude, eta horietako bat Tolosan egiten da. Azaroaren 11n, hainbat eskoletako haur gorrak Donostiara joango dira, eta Gipuzkoako Gorren Elkartearen egoitzan zeinu hizkuntzan egindako film laburrak ikusiko dituzte. «Adin horretan ezberdin sentitzen dira eta zeinuen hizkuntzan film laburrak ikustea aberatsa izango da berarentzat, identifikatuta sentituko direlako», dio Rodriguezek. Egun horretan, arratsaldean dokumental bat ikusteko aukera izango da Tolosan, baina ez dakite oraindik non izango den.

Azaroaren 12an izango da film laburren jaialdia. Egun guztian zehar izango da, guztira 18 proiektio. Bukaeran sari banaketa egingo da. Jaialdirako sarrerak salgai daude www.gainditzen.com webgunean. Dagoeneko 200 sarrera saldu dituzte. «Zeinu hizkuntza ez dakitenei ere gonbidapena luzatzen diegu», zehaztu du Rodriguezek.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gutunak

Eskerrak herritarrei

Larramendi auzoko batzarren inguruko gutuna.

Tolosako Udalak eskerrak eman nahi dizkie Larramendi auzoko batzarrean parte hartu zuten herritar guztiei.

Pozgarria izan zen pleno aretoa, aspaldian ez bezala, leporaino herritarrez bete ikustea, inoiz baino gehiago herriaren boterearekin; pozgarria izan zen herritarren parte hartzea eta iritzi ezberdinen truketzea, bai Udalaren jardunaren aldekoak, baita kritikoak ere.

Azken batean, horretarako daude udal arduradunak, herriaren iritzia entzuteko, aldeko zein aurkako izan, betiere errespetuz eta begirunez adierazita. Oro har, hala izan zela deritzogu.

Gure ustez, zoriontzekoa izan zen guztion artean egin genuen ariketa. Izan ere, ez gaude horrelako prozesuetara ohituak, eta jakitun gara guztiok dugula asko ikasteko eta hobetzeko. Udalak beste inork baino gehiago.

Hala ere, hasieratik esan dugun bezala, Udalaren konpromisoa herritarrek, eta kasu honetan auzotarren hitza errespetatzea izango da. Era horretan, etorkizuneari begira diren deialdietara gerturatzeko, parte hartzeko gonbita luzatzen dugu lerro hauen bidez. Ibiliaren ibilaz asko dugulako ikasi eta egiteko. Etorkizuneko Tolosaren erakuntzan denok dugulako zer esana.

■ Tolosako Udal Gobernuak.

Haur zinea euskaraz eta 3 dimentsiotan izango da

Drama, haur zinea eta komedia beltza ikusgai izango dira asteartera bitarte, Leidor aretoan

Leidor aretoan ikusgai izango da, hiru egunetan. Bihar, larunbata, 22:30ean proiektatuko dute; astelehenean, berriz, ikuslearen egunean, 20:30ean izango da pelikula, eta asteartean, urriaren 25ean, 19:30ean eskainiko dute.

Alejandro Dumas-en eleberri entzutetsuaren moldaketa berria da *Hiru mosketariak*.

3 dimentsiotan eskainiko dute filmea, eta euskaraz izango da gainera, bi saioetan. Lehenengoan urriaren 23an izango da, igandean, 17:00etan; bigarren eta azken saioa, berriz, asteartean eskainiko dute, ordu berean.

Azkenik, umore beltzaz ere gozatu ahal izango da Leidorren, *Como acabar con tu jefe* filmarekin. Hiru gizon beren nagusiarekin nazkatuta daude, eta plan bat prestatuko dute nagusiak begi bistatik galtzeko.

Bi saio izango dira film honekin, igandean; bata 19:30ean izango da, eta bigarren aldiz 22:00etan proiektatuko dute pelikula.

● tolosa@hitza.info

I. Urkizu

Lau eguneko zine asteburua izango da datorren hau, eta tolosarrek azken asteotan estreinatutako hiru film izango dituzte ikusgai Leidor aretoan. Gaztetxoaren kasuan, gainera, 3 dimentsiotan eta euskaraz ikusi ahal izango dute *Hiru mosketariak* pelikula.

El arbol de la vida filmak Jack mutikoaren bizitza kontatzen du. 1950eko hamarkadan girotutako film honek, pelikularik onenaren saria jaso zuen aurtengo Canneseko jaialdian.

Kritikaren arabera, gizakiak betidanik bere buruari egin izan dizkion galdereak gidatuko dute haria Terence Malick-en film honetan.

→ Laburrak

Gurasoentzako hitzaldiak Orixe institutuan

GIZARTEA Tolosako Orixe institutuak gurasoei zuzenduriko hitzaldi batzuk antolatu ditu. Datorren asteazkenean, hilak 26, *Nola lagundu seme-alabei beren arazoetan* izeneko saioa izango da, institutuko Gorosabel liburategian, 18:00etan.

Aldaketak zirkulazioan Gernikako Arbola Inguruan

TRAFIKOA Gernikako Arbola inguruan burutzen ari ziren lanak amaitu dituzte, eta trafikoak zenbait aldaketa jasango ditu. Hasteko, San Juan kalea anbulatoriora eta aparkalekura sartzeko bakarrik erabiliko da, eta irteera Batxiller Zaldibia kaletik izango da. Era berean, Gernikako Arbolako atzeko aldean, zirkulazioaren noranzkoari buelta emango diote, kontrako noranzkoa jarri.

Voith-Gorostidiko proiektua legeak babesten duela dio EAJK

Udal gobernuak herri kontsulten sistema ados ez dagoen proiektuetan soilik erabiltzea kritikatu dute

I. Urkizu

Tolosako Udaleko EAJ-PNVko taldeak, Voith-Gorostidiko etxebizitzek azken asteotan sortu duten hika-mikari erantzun dio. Besteak beste, aipaturiko urbanizazio proiektua legearen barruan dagoela, eta ezker abertzaleak ez duela helegiterik aurkeztu nabarmendu dute.

Lehenik eta behin, EAJ-PNVk Voith-Gorostidiko proiektua legeak babesten duela defendatu nahi izan du: «Indarrean dagoen Plan Orokorrak arautu eta babesten du Voith-Gorostidi, eta ez du segurtasun juridikorik behar». Modu honetara, udal gobernuak emandako argudioei erantzun nahi diete jeltzaleek, eta guztia legearen barruan dagoela berresteko, «udalak Plan Orokorra idatzi duten aitortza handiko adituen

aholkua» badituela nabarmendu dute. Era berean, Bilduk eta Aralarrek osatutako udal gobernuak hartutako erabakia dela eta, beren protestak azaldu dituzten bizilagunekin bat egin du EAJ-PNVk: «Gaur egun 550 bizilagunek sinatuak dituzte salerosketarako agiriak Voith-Gorostidin, eta bizilagun horiek baldintza batzuk medio erosi dituzte etxebizitzak». Egoera honen aurrean, «bizilagunen egonezina gutziz ulergarria» dela nabarmendu dute.

Larramendiko eremu horretan etxebizitzak egiteko ideia sortu zenez geroztik, «eragozpenak jarri dituen bakarra ezker abertzalea izan da», EAJ-PNVko udal taldearen arabera. Ezker abertzaleak epailearen aurrean obrak gelditzeko eskaera hiru aldiz egin duela azpimarratu dute jeltzaleek, eta «epaileak eskabide horiek ez dituzte kontuan hartu», euren diotenez. Ildo beretik, EAJKo kideek erabak gaitzetsi dute ezker abertzaleak obrak geratu nahi izatea, eskaera hauek «bizilagun askoren eragina izango zuela jakinik» egin zituztelako.

Lurperatzeak ekarriko lituzkeen gastuen inguruan sortutako eztabaidari buruz ere, beren iritzia azaldu nahi izan du Tolosako EAJ-PNVko udal taldeak. Horrela beraz, «gastu hori proiektuak bere gain hartua» duela azpimarratu dute, «bizilagunek beren etxebizitzak erosterakoan jarri zituztelako».

Azkenik, Tolosako Udaleko EAJ-PNVko udal taldeak Bildu «aurrera begiratu beharrean atzera begira» dagoela salatu du. Bide horretan, Voith-Gorostidiko proiektua gelditzeaz gain, «Voith-eko etxebizitza zaharrak botatzea, Arkaute plaza birgaitzea edota sortzen den plaza berria eraikitzea geldiaraziko ditu», jeltzaleen esanetan.

EAJ-PNVren ustez, Voith-Gorostidiko afera kontsultaren bidez auzotarren esku jartzak «garantizakoa dirudi». Hala ere, adierazpena kritika batekin amaitzen dute: «Ekimen honen sinesgarritasuna zalantzan jartzen da, beraiek ados dauden proiektuek kontsultarik ez dutela behar konturatzaren gairean».

● tolosa@hitza.info

Gutunak

Asteburu zirrargarria

Enrike Azurzak bere azken kontzertua eskaini zuen pasaden larunbatean, Hodeiertzako zuzendari bezala.

Pasa den asteburuan kontzertu berezi eta esanguratsuenetakoa bat izan zuen Hodeiertz Abesbatzak.

Giro paregabean, eta beste bi abesbatza lagun genituela, 26 urtetan gure zuzendaria izan den Enrike Azurzak azkenekoz zuzendu gintuen, aldi baterako uzten baikaitu bere ibilbide profesionalen etapa berri bati ekiten. Lerro hauetatik zorterik

oparoena zuzentzat Enrike, Kantabriako Abesbatza Lirrikoko zuzendari lan berri horretan.

Gainera, guretzat hain momentu berezia izan dena beste bi abesbatzarekin elkarbanatu ahal izan dugu: Xabier Sarasola lagunminak zuzendutako Beasaingo Loinaz abesbatzarekin, eta Juan Pablo de Juanen gidaritzapean aritu zen Madrilgo Coro de Voces Graves abesbatzarekin. Ezin genezakeen agurkontzertu perfektuagorik eskatu! Eta borobiltzeko, guretzat hain esanguratsua den marko

batean: Tolosako Abesbatza-Lehiaketa iragartzen duen Topaketako kontzertuan alajaina!

Asteburu ahaztezina, eta ezin hobea, gure Enrike maiteari gero arte esateko.

Mila esker Hodeiertzi eman diozun guztiagatik, eta hain gora eramateagatik. Zuk egin gaituz eta zuri zor dizugu.

Gaurtik aurrera aro berri bati hasiera ematen dio Hodeiertz Abesbatzak Jorge Apodacaren zuzendaritzapean. Ongi etorri Jorge!

■ Hodeiertz abesbatza.



Hodeiertz abesbatzak Santa Klarako elizan eskaini zuen kontzertua. HITZA

Jon Altuna ◊

Lain taldeko bateria-jotzailea

‘Leihoak’ diskoa kaleratu berri du Villabonako taldeak. Altunak dio disko honetan «borobilagoak» izan direla.

«Leihoak ireki behar dira sentimenduak ateratzeko»

Arantza Goikoetxeandia

Villabonako Lain taldeak bigarren diskoa kaleratu du, *Leihoak* izenekoa. Lehen diskoarekin izandako arrakasta ia ezustean hartu zituen, baina oraingoa emaitza nolakoa izan behar zuen «hobeto pentsatu» dutela dio Jon Altuna bateria-jotzaileak.

Diskoaren grabaketa nolakoa izan da? Zenbat denboran aritu zarete lanean?

Bigarren disko honekin orain dela urte bete inguru hasi ginen lanean, pixkaka-pixkaka guretzat maketak egiten hasi ginen; abestiak konposatu, entzun, gustukoa ote genuen edo ez adostu... Orduz geroztik estudioetik bueltaka ibili gara dena ongi pentsatuz. Alde horretatik, lehen diskoa baino bateagoa izan da diskoaren prestakuntza.

Nor arduratu da konposizioaz? Eta nork egin ditu letrak?

Abestiak guk egin ditugu, denon artean; batek ideia bat ekartzen zuen eta denon artean borobiltzen genuen. Letrak, normalean neskek egin dituzte; baina Imanolen (gitaristaren) laguntza ere jaso dute.

‘Leihoak’ izena du zuen disko berriak, zer adierazi nahi duzue izenburu horrekin?

Leihoak ireki abestian leiho ire-

kiez eta itxiez hitz egiten dugu, orokorrean disko guztian ideia hau agerikoa da: leihoen irudia erabili dugu sentimenduak adierazteko, sentimenduak ateratzeko norberak bere baitan duen leihoa ireki behar baitu. Ideia honen ondorioz erabaki genuen diskoari izenburu hau jartzea.

↓ **Fitxa**

- **Izenburua.** *Leihoak.*
- **Argitaletxea.** Elkar.
- **Salneurria.** 14,95 euro.
- **Argitalpen data.** 2011. urteko urria.

Itxaropena, alaitasuna eta maitasuna dira diskan gailentzen diren gaiak. Zergatik nabarmendu dituzue batez ere, gai horiek? Hauen falta sumatzen al duzue inguruan?

Ez da hori. Sentimendu hauek edozein pertsonak ditu inguruan, horregatik aukeratu ditugu. Baina beste gai batzuk ere jorratu ditugu; *016* abestian emakumeen aurkako indarkeriaren kontra hitz egiten dugu; hurrengo single-a izango den *Beldurra*

abestian ere norberak bizitzan dituen beldurrak jorratzen ditugu...

Abesti itsaskorrek egiten dituzuela esaten da, ados zaudete horrekin? Hori al da zuen helburua?

Agian abesti batzuk, duten egiturarengatik, itsaskorrek izan daitezke, horrelakoak direlako era-



bilienak. Berez, gure helburua ez da abesti itsaskorrek egitea, baina batzuetan nahi gabe horrelakoak sortzen ditugu.

Eta horrek ez al zaituzte ikus-entzule jakin bat izatera mugatzen?

Guk badakigu gure publikoa murriztua dela; adin jakin batekoa da, badakigu. Baina onartzen dugu.

Euskal Herri osoan ezagunak egin zarete, nola daramazue hori? Zenbat aldatu da zuen bizitza azken urteetan?

Ezagunak, ezagunak ere ez gara. Ez da asko aldatu gure bizitza; noizbehinka jendeak ezagutzen gaitu, baina berez ez gara ezagunak. Pixkana-pixkana zabaltzen goaz: aurreko urtean Bizkaia aldera zabaltzen hasi ginen, baita Iparraldera ere. Gipuzkoatik atera gara eta zerbait nabaritzen hasten da, batez ere Bizkaian, eta oso ondo daramagu hori.

Bonberenean jo zenuen ostiralean, etxetik hurbil, nola joan zen?

Oso gustura geratu ginen; Bertan Behera Bizkaiko taldearekin jo genuen eta beraiek ere gustura aritu ziren. Gainera Bonberenean askotan jo dugu eta lagun artean geunden. Eszenatokia txikia izateak ere laguntzen du, publikoarengatik gertuago sentitzen baitzara. Oso ondo egon zen, benetan.

Non izango dira zuen hurrengo kontzertuak? Agenda bete duzue?

Abenduaren 7an Bilboko Kafe Antzokian egongo gara, 16an berriz, Gasteizko Jimi Jazz aretoan eta 17an Elizondoko Lur aretoan. Durangoko Azokan ere izango gara kontzertu akustiko bat eskaintzeko.

Talde batek bigarren diskoa ateratzen duenean, lehenengoarekin baino zailtasun gehiago izaten dituzue orokorrean. Nola ikusten duzue zeuen burua ibilbide berri honetan?

Zailtasunei aurre egiteko prest al zaudete?

Bigarrenengoarekin hobetu egin dugula iruditzen zait, lehenengo igerilekura botatzea bezala izan zen; zerbait egiteko asmorekin joan ginen, gauza handirik finkatu gabe eta horregatik sortu genituen estilo desberdinetako abestiak. Bigarren disko honetan, ordea, pixka bat borobilagoak izaten saiatu gara; abesti guztietan antzeko estiloa izaten, baita egituretan ere... Alde horretatik bigarren disko hau hobeto prestatu dugu. Zailtasunei aurre egiteko prest gaude: orain ikusi behar duguna da gure ikusentzuleek nola erantzuten duen, baina bai, norabidea aurreko diskoan baino finkatuagoa dugu.

Zer gomendio emango zenieke, talde bat sortu nahian dabilzan horiei. Merezki ote du lokalean orduak jo eta jo aritzea?

Lehenengo jarri behar dena ilusioa da; ilusioa jartzen baduzu eta gogoarekin egiten baduzu lan, lortu daiteke: gu horrelaxe hasi ginen eta pixkana-pixkana goruntz joan gara, konturatu ere egin gabe. Eman dezakegun gomendio bakarra zera da; entseatu dezatela, abestiak landu ditzatela eta ilusioa izan dezatela, besterik ez.



HITZA

Plaza Etxeberri JATETXEA
 Pedro Mari Okariko Plaza 943 69 19 36 Zizurkil

lasta itzazu jare babarrunak

Babarrunak nahi adina bere osagai guztiekin poltsa eta edaria* bane
 *etsako bodegari 25€

Babarrun platerik bere osagai guztiekin 15€

jatetxea@plazaetxeberrri.com
 www.plazaetxeberrri.com

hitzaren udazkeneko arropa eskaintza

KOLOREA: Morea • Berdea
 NEURRIAK: 3-4/5-6/7-9/9-11

Kolorea: beltza
 Gizon eta emakumeen modeloak
 NEURRIAK: Gizonak: S-M-L-XL-XL
 Emakumeak: S-M-L-XL

Haurrentzako jertsea: 25€
 Helduentzako jertsea: 29,5€

Noiz eta nola egin eskaria?
 • Telefonoa: 902-82 02 01
 • Postaz: harpidetza@hitza.info

Urriak 28 bitarte duzue aukera eskaera egiteko

hitza

Artisau Jogurtak

Mahala

Euskal Herriko kultur agenda osoa bildu asmoz, webgunea sortu dute

‘www.ehagenda.info’ web orria denbora librea baliatuz sortu du gazte talde batek; hilaren lehen jarri zuten martxan

Eneritz Maiz Ikaztegieta

Hilaren lehen jarri zuten www.ehagenda.info webgunea martxan. Urtebeteko lanaren ostean, erabilgarri dago dagoeneko Euskal Herriko kultur agenda bildu eta eskuragarri jarri nahi duen web orria.

Kultur agenda osatu bat egin ahal izateko, udaletxe, elkarte, eragile eta norbanakoen laguntza nahi dute webgunea sortu dutenek. Webgunearen berri batean eta bestean zabalteko lehen saiakera egin dute. Dagoeneko hainbat lekuetatik jasotzen hasi dira informazioa, baina gehiagora iritsi nahi dute. Gehienbat Gipuzkoa mailan zabaldu dute, baina zazpi lurraldeetara iritsi nahi dute.

Doakoa eta irabazi asmorik gabekoa da. Ikaztegieta lagun talde bat elkartu zen, eta beraien denbora libre baliatzen dute.

Modu errazean erabiltzekoa

Hasiera batean, webgunearen itxurari baino garrantzi handiago eman diote web orria erabiltzeko irizirik. Hilabeteen ostean, jendearen aldetik erantzun ona jasoko balute, hobetzen joateko



Urriaren lehen martxan dago webgunea. Herrietako informazioa jaso nahi dute agenda osatzeko. E. MAIZ

helburuak dituzte. Aurrera begira, taldeko kideek hainbat ideia dituzte buruan.

Informazioa bilatzea edo sartzeko oso modu errazean egin daiteke. Euskal Herri osoa hartuta, edo herrialdeka egin daiteke bilaketa. Eta deialdiaren bat sartu nahi izanez gero, bertan dago aukera. Eskatzen diren datuak betezea baina ez da egin behar. Antzerkia, kontzertuak, bertsoa, dantza, erakusketa, pailazoak eta hitzaldiak atal bati banatu dituzte.

Lagun talde baten ideia

Igandean, hilaren 23, urtebeteko izango da Euskal Herriko kultur agenda osatu bat egiteko ideia bururatu zitzaiona Ikaztegieta

@ Parte hartzea. Elkarte, eragile, udaletxe eta norbanakoen laguntza eskatzen dute. Edozein herri, auzo edo kaletan antolatzen diren ekitaldi, emanaldi edota festen informazioa modu erraz batean bidaltzeko modua edonoren eskura jarri dute. Era berean, jendeak antolatutakoak zabalteko aukera eskaintzen dute. Facebook sare sozialean ere ekitaldien berri zabalitzen dute. www.ehagenda.info

gazte talde bati. Egunkarietan eta interneten informazio osatu bat aurkitzen ez zutela eta, zerbait egin behar zutela esan, eta egin egin dute.

Teknologia berrietan aditu ez izan arren, ikasitako praktikan jarri egin dute guztia. Batek web orria sortu du, eta besteak diseinua egin du. Behin sortuta, eta martxan jarrita, talde osoaren artean banatu dituzte webgunea elikatze eta eguneratzeko ardurak. Laneko orduetatik kanpora, bakoitzak aukera duenean denbora bat eskainiko dio webgune elikatzeari.

Inork publizitatea egiteko beraien orria erabili nahiko balu ere, gazte talde honek atek irekita ditu. Elkarlanerako prest daudenez, truke bat egitea proposatuko lukete. Facebook sare sozialean ere zabalduko dituzte deialdiak.

→ Laburrak

Makrobiotika ikastaroan izen ematea zabalik dago

ALEGIA ▶ Udadaren kulturaren barruan makrobiotikako ikastaroa antolatu dute. Azaroko asteazkenetan, hau da, 2, 9, 16, 23 eta 30ean izango dira saioak. 19:00etatik 22:00etara izango da, Txintxarri elkartearen. Ikastaroa Aitor Jimenezek emango du, eta 15 euro ordaindu beharko da. Izena Alegiako Inaxio Begiristain kultur etxean eman beharko da hilaren 28a baino lehen.

Bilboko manifestazioa joateko izen ematea

ANOETA ▶ Bihar Bilbon egingo den manifestazioa joateko autobusa antolatu dute Anoetan. Itzuli tabernan eman behar da izena eta ezker abertzaleak horretarako deia luzatu du. Autobusa 15:00etan aterako da herriko plazatik.

↓ Pilota partidak

URRIAK 21, OSTIRALA

- **Zizurkil.** 17:30ean hasiko dira partidak, eta Ziotza taldekoek zazpi partida jokatuko dituzte.
- **Ikaztegieta.** 19:00etan hasiko dira partidak, eta Intxurrekoek lau partida jokatuko dituzte.
- **Bidegoian.** 19:30ean hasiko dira partidak. Aurrera-Salazek hiru partida jokatuko ditu.
- **Alegia.** 20:00etan hasita bi partida jokatuko dituzte Intxurrekoek.
- **Amezketeta.** 20:00etan hasiko dira partidak, eta Zazpi-Iturrik lau partida jokatuko ditu.

URRIAK 22, LARUNBATA

- **Tolosa.** 15:30ean hasita bi partida izango dira Beotibarren.
- **Altzo.** 16:00etan hasita hiru partida jokatuko dituzte Intxurrekoek.
- **Bidegoian.** 14:00etan hasiko dira partidak, eta guztira lau partida izango dira.

Perretxikoak ikusi eta jateko aukera, bihar

12:00etatik aurrera Trianguloan onddo eta perretxikoekin egindako pintxoak jateko aukera izango da

E. Maiz Tolosa

Asteazkenean hasi ziren Mikologia Jardunaldiak, eta bihar amaituko dira. Gaur, Tolosaldeko ikasleentzako DBH 1eko ikasleek irteera egingo dute perretxikoak biltzera. Horretarako, Kasino elkartearen zenbait bazkideren laguntza izango dute. Hauek bildutuzten perretxikoak, arratsaldean Aranzadiok sailkatu egingo dituzte.

Bihar, Tolosaldeko eta Goierriko hainbat jateentzako sukaldariak pintxoak prestatuko dituzte,

Trianguloa plazan. 12:00etatik aurrera izango da pintxoak dastatzeko aukera, eta osagai nagusiak onddoak eta perretxikoak izango dira. Euro baten truke txartela eskuratu beharko da, eta hamalau postu izango dira. Ikasleek bezperan bildutako perretxikoak ikusgai egongo dira ere.

Herenegun izan zen lehen ekitaldia Zerkausian. *Bere habitatean inprobisatzen* mikogastronomiako hitzaldia izan zen. Ruben Trincado eta Roberto Ruiz ziren izatekoak, baina azkenean, Iker Martinez Ormaiztegi Kuko jateentzako, Fronton jateentzako sukaldari taldeko Sonia Tapia, eta beraekin batera, laguntzaile lanetan, Jose Boccardo sukaldari argentinarra izan ziren.

Atzokoan berriz, barrenegorriak izan zituzten hizketa gai, Pedro Arrillagaren eskutik.



Zerkausian perretxikoak sukaldatzen aritu ziren, herenegun. HITZA

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

TOPAk anbulatorioko baliabideak berrezartzeko eskatu du Gasteizen

Eusko Legebiltzarrean izan ziren taldeko 3 kide, herenegun; osasun batzordeko kidearekin egon ziren

Rebeka Calvo

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformako kideak beren eskaerak zabaltzen jarraitzen dute. Astelehenean Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako saileko arduradunarekin egon ziren, eta herenegun Gasteizeko Eusko Legebiltzarrean izan ziren.

TOPAko 3 lagun osasun batzordeko kide batekin bildu ziren, eta bitartean TOPAko beste kide batzuk eta Santiago ospitale publikoaren aldeko plataforma kideak, elkarretaratzea egin zuten.

Eskaerak

TOPAko kideek eskaera zehatzak egiteko baliatu zuten bilera: «Tolosalderako kudeaketa publikoko eskualde ospitale publikoa eta espezialitateetako anbulatorioa osoki mantentzea aldarrikatzen dugun». Izan ere, eskualde ospitale publikoa ez duen bakarra dela gogoratu zuten plataformako kideek, berri ere.

Eskaerak beraz, hauek izan zi-

ren: espezialitateen anbulatoriok kendutako giza baliabide eta baliabide teknikoak berri ere itzultzea, eta behin betiko eskualdeko ospitale publikoa exijitzea, «eta ez eskualde ospitale moduan lan egingo duena».

Eskaerak egiteko ordea, beren burua aurkeztu behar izan zuten. «Sindikatuak, alderdi politikoak, mota guztietako elkarteak, Osakidetzako langileak eta herritarrek gara», esan zuten.

Era berean, eskualdean osasun publikoaren alde jasotako 16.000 sinadurak, Tolosaldeko 30 herrietako alkatetzan eta Foru Aldundiako Ander Rodrigezen babes nabarmendu zuten. Honekin batera aurki abiaraziko duten batzordeak hitz egin zuten, hau da, Tolosalderako Integrazio Osasun Arreta Proiektua: «Asistentzi eredu mistoa proposatzen dute; eredu publiko-pribatua». TOPAko kideek eredu publikoa nahi dutela aldarrikatu zuten.

Honekin batera gaur egun, eskualdeko osasun arretaren egoera nolakoa den azaldu zuten, eta gaineratu «Osasun sailak Tolosalderako egin nahi duen berantolataketarekin arreta espezializatua anbulatorio publikotik desagerraraziko du, horrela espezialitate mediko eta kirurgiko ohikoaren arreta Asuncion Klini-

kan kontzertatutako ospitale pribatu mantenduko dira. Donostia Ospitalera joateko aukerarik gabe».

Salaketak

Salaketa gehiago ere egin zituen TOPAko.

«Klinikari mesede egiten dioten kudeatzaileak jarri dituzte, anbulatorioaren kalterako. Bikoiztasunak saihesteko egin behar ziren ikuskapenak ez dira egin. Nortzuk dira honen erantzule? Gure iritziz espezialitate bati bi tokitan ematen bazaio arreta, bai klinika kontzertatuan eta baita anbulatorio publikoan, bikoiztasunak ez emateko, desagertu beharko lukeena Osakidetzari ez dagokiona izan beharko luke, kasu honetan klinikako zerbitzua desagertu beharko luke, eta ez, Osakidetzakoa den anbulatorio publikokoa», esan zuten.

Bukatzeke, Asuncion Klinikak ez duela inoiz ospitale publiko batek ematen duen zerbitzu bera eman gogoratu zuten, etekin ekonomiko lehenetsiko baitu. Proposamen mistoak zerbitzu-zorro berria eskainiko duela ere aipatu zuten, baina plataformako kideen iritziz «zerbitzu hauek azaleko aldaketak dira, eta gaixoen arreta orokorrean eragin gutxi izango dute».

AHT Gelditu! Elkarlanak informazio gunea jarriko du Tolosan, bihar

11:00etatik aurrera egongo dira Trianguloan; 11:30ean mahai ingurua ere egingo dute

R.C. Tolosa

AHT Gelditu! Elkarlanak informazio gunea jarriko du bihar, Tolosako Trianguloa plazan, *Etxebizitzak bai, AHT ez lelopean*.

11:00ak inguruan zabalduko dute eta bertan hainbat informazio zabalduko dute.

Alde batetik, argazki erakuske-

ta jarriko dute. Horrez gain, bideoak erakutsiko dituzte, eta horietan AHTk «Tolosaldean eragindako kalteen berri» emango dutela azaldu dute elkarlaneko kideek. Panel informatiboak ere izango dira.

Mahai ingurua

Era berean, mahai ingurua ere egingo dute, 11:30ak aldera.

Bertan parte hartuko dute Kepasakonlaka elkarte kide batek, emakume baserri batek eta LABeko kide batek.

Horrez gain, haurrentzako tailerra antolatu dute AHT Gelditu! Elkarlanekoek.



Tolosako Auzo Txiki AHTren obrak. A. IMAZ

PSE-EEko Astudillo Villabonako alderdiko ordezkariarekin bildu da

Oria bailarako ordezkaria eta zinegotzia Gipuzkoako Foru Aldundiko politikari salatu dute

R.C.

PSE-EEko Oria bailarako Julio Astudillo batzarkidea Villabonako alderdiko zinegotziarekin, Maria Luisa Arijarekin, bildu berri da. Bilan udaletako finantzake-

ta izan zuten hizpide, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarrera salatu zuten. «Bildurekin etsipen sententzia dugu. PSE-EEK Gipuzkoako udalen finantzaketa igotzeko proposamena egin zuten, Foru Aldundiaren orainko %57a %60ra igotzeko. Foru Aldundia ekimena bideratzearen kontra azaldu zen, EAJrekin batera», esan du Astudillok. «Sozialisten presioa medio, hala ere, finantzaketa bi urteren buruan %58ra igo behar izan du, hala ere, nahikoa ez dena», gaineratu du.



TOPAko kide batzuk bilera egiten zuten bitartean, beste batzuk elkarretaratzea egin zuten. HITZA

Bertako informazioari bertako produktuak

Egin HITZaren harpidedun

urriaren 31 baino lehen eta jaso

artxai gazta, Idiazabal jatorri izenarekin, **OPARI**



hitza info

Harremanetarako:

902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

Hitzaren harpidedunen artean, azaroaren 2an, **asteburu bat zotz egingo dugu** Aireberria Hotelaren eskutik.

www.aireberria.com



*Saria 2011n erabili behar da.

Barriola eta Bengoetxea VI.a «ilusio handiz» lau t'erdikoan aurrera egiteko

Retegi Biren aurka jokatu du gaur Barriolak, eta Irujoren aurka ariko da igandean Bengoetxea VI.a

Iñigo Terradillos Leitza

Lau t'erdiko txapelketa mailarik gorenera ari da iristen pixkanaka. Hirugarren final-laurdenak jokatu dituzte asteburu honetan, eta bertan erabakita geratu da finalerdietako ligaxkan ariko diren pilotarien zerrenda. Horien artean egon daitezke bi leitzar, Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea.

Lehenak gaur du partida, Julien Retegiren aurka, 22:15ean Besaingo pilotalekuan. Partida honekin ekingo dio leitzarrak lau t'erdikoari, izan ere, pasa den urtean txapeladunorde izatearen ondorioz, zuzenean sailkatu da hirugarren final-laurdena. Barriola



Iragan uztailera San Fermín Txapelketa Bengoetxea VI.a Irujori gailendu zitzaion. HITZA

lak azaldu duenez, «oso ongi» aurkitzen da animoz, eta «ilusioz beterik» eta «gogotsu» dago txapelketari hasiera emateko. «Ahalik eta egokien prestatzen saiatu naiz, eta ea 22ra iristeko gai naitzen», adierazi du.

Retegi Biren aurkako partida

«gogorra» izango dela uste du Abel Barriolak; «Orain bi urte finalerdietan sartu zen Retegi, maila handia ematen duen pilotaria da». Bere ustez, dena den, txapelketaren une honetan, partida guztiak dira «zailak» eta «gogorrrak». Hala ere, irabazteko borro-

katuko du leitzarrak, eta «ikuskitzen dutorea eman eta zaleek gozatzeko badute askoz hobe».

Bengoetxea Irujoren aurka

Barriola eta Retegi Biren arteko norgehiagokaz gain, final-laurdenetako beste hiru partida hartu-

ko ditu asteburuak. Bihar, larunbata Gonzalez eta Olaizola II.a eta Titin III.a eta Xalaren artekoak izango dira, eta etzi, igandean neurtuko dira Irujo eta Bengoetxea VI.a.

Eibarko Astelena pilotalekuan izango da bi nafarren arteko lehia. Maila handiko pilotariak diren heinean, ikuskizun paregabea eskainiko dutela espero da. Ezin esan, ordea, lau t'erdikoaren euren berezitasuna. Leitzarra, esaterako, ez da inoiz final-laurdenetatik pasa, eta Iberokoa bere mailatik urrun geratu ohi da.

Bengoetxearen arabera, «oso partida zaila» izango da igandekoa. «Guztiok dakigu Irujo pilotari ikaragarria dela eta txapelketetan maila handia ematen duela», dio leitzarrak. Bere burua ongi ikusten du, eta «ilusioz» dago partidaren aurrean; «Ongi jokatzeko badut aukera izan dezaket, baina irabaztea oso gogorra izango dela uste dut», azaldu du.

Ikusi beharko, beraz, asteburuak zer ematen duen. Bengoetxeak estreinako finalerdietarako txartela lor lezake, eta Barriolak ere aurrera egingo balu, bi leitzarrak beste behin nor baino nor ariko liriateke.

Bildutako perretxikoak jaso eta sailkatu egingo dituzte gaur eta bihar

I. Terradillos Leitza

Alke kultur elkarteak antolatutako duen IV. Mikologialdiaren barruan, herritarrek biltzen dituzten perretxikoak jasotzen ariko dira gaur udaltxeko karrapean, 19:00etatik 20:00etara. Bihar, berriaz, horiek sailkatuko dituzte, goizez eta arratsaldean.

Bestalde, bihar goizerako Mendibil elkartearen eskutik onddozak biltzera joango dira gazte-txoekein, 09:30ean.

Leitza



GELDIALDIA MURRIZKETAK SALATZEKO

Nafarroako Gobernuak hezkuntza ezarri dituen murrizketak salatu aldera, ordubeteko lanuztea egin zuten atzo eguerdian Leitza Amazabal institutuko eta Erteta eskolako Lehen eta Haur Hezkuntzako irakasle eta ikasleek, egoitzen atarian. 50 lagun inguru elkartu ziren. Hurrengo elkarretaraztea datorren asteartean, hilaren 25ean egingo dute, 11:00etatik 13:00etara. Ostegunerako, hilaren 27rako, greba iragarri dute, eta manifestazioa egingo dute Iruñan, 12:00etan. HITZA

Hilberriak

ESKELAK

943 65 56 95
tolosaldean@hitza.info



BEGOÑA DIEREZ ZINKUNEGI

(Lorenzo Tapiaren alarguna)

Herenegun hil zen, 88 urte zituela.

Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Seme-alabak: Iñaki, Patxi eta Ana Alonso, M^ñ Isabel; bilobak: Garazi eta Iker Zubeldia, Hirune eta Jon Ander Egidazu; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak, eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan egingo den hileta-elizkizunera. Eskerrik asko guztioi aldeaz aurretik.

Helbidea: Bustuntza Etxaldea 6, 2.Esk.

Oharra: Gorputz laguntza familia artean egin zen.

Ordizia, 2011ko urriaren 21a



ENEKO ALDASORO URKIA

Atzo zerura igo zen, 2 urterekin

- Goian bego -

Gurasoak: Mikel eta Arrate; anaia: Xabier; aitona-amonak: Miguel eta Pepi, Pedro M^ñ eta M^ñ Luisa; birramona: Pilar; osaba-izebak: Miren eta Almar, Amaia eta Koldo; lehengusua: Sara; eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN, MIKEL GOIINGERUAREN parroki elizan egingo den hiletara. Aldeaz aurretik, mila esker.

Idiazabal, 2011ko urriaren 21a

Oharra: Gorputz laguntza familia artean egingo da.



18°
10°

| | |
|-------------|---------|
| GOIZA | OSKARRI |
| ARRATSALDEA | OSKARRI |
| BEROENA | 22° |
| HOTZENA | 11° |

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Kasinoko Mikologia Jardunaldien barruan gaur, Tolosaldeko ikastetxeetako DBH1eko ikasleek irteera egingo dute perretxikoak biltzeko Kasinoko hainbat kiderekin, eta arratsaldean, kultur etxean, Aranzadiko kideek sailkatuko dituzte. Bihar 12:00etan, Trianguloan, hainbat sukaldarik pintxoak prestatuko dituzte.

■ **Leitza.** Mikologiadiaren barruan gaur, herritarrek mendian jasotako perretxikoak bilduko dituzte udaletxeko karrapean, 19:00etatik 20:00etara. Bihar 09:30etik aurrera, haurrentzako mendi irteera egingo dute. Era berean, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik aurrera perretxikoak sailkatuko dituzte. Igandean, 11:00etatik aurrera ekitaldi ugari izango dira, eta 19:00etan zineman, Georgina Hassan abeslariaren kontzertua izango da.

■ **Tolosaldea.** Biharko Bilbon *Euskal Herriak konponbidea nahi du* lelopean antolatuta den manifestaziora joateko autobusak antolatuko dituzte eskualdean. Tolosan 15:30ean San Frantziskotik aterako da eta Raku, Xirimiri eta Denak tabernetan

eman daiteke izena. Asteasunaldiz, 15:15ean irtingo da autobusa eta herriko tabernetan eman daiteke izena edo 615 70 87 32 telefono zenbakira deituta. Ibarran 15:00etan irtingo da autobusa kultur etxe paretik eta Zubiaurre, Atari, Subegi eta Dannon Txokoa tabernetan eman daiteke izena. Alegialdean ere antolatuko dute autobusa; 15:00etan irtingo da Armezkatik eta 15:30ean Alegiatik. Ohiko tokietan eman daiteke izena.

■ **Tolosa.** Hilaren 29ko kantu jira eta gero bazkaria egingo dute laguntzera etorriko diren Legazpiko Alaitasuna errondailako musikariek batera. Bazkaria Oargin izango da 14:30ean, eta babarrun jatea gingo dute 17:00etan. Txartelak Xirimiri txokolategian erosi daitezke. Txartelak erosteko azken eguna hilaren 24a izango da.

KIROLAK

■ **Hernialde.** Alpino Uzturrek antolatutako Rolleski Igoera, bihar, 16:00etan patinatzaile estilokoak irtingo dira Belate-tik, eta 16:05ean klasiko erakoen txanda izango da. Hauxe Bentatik aterako dira.

BERTSOLARITZA

■ **Villabona.** Gpuntu final laurdenetako bigarren saioa etzi, igandea, Olaederra kiroldegian, 17:30etik aurrera.

JAIAK

■ **Ugane.** Jaiak izango dituzte bihar: 12:00etan XIII. Txirindulari Igoera egingo dute, eta ondoren Anjel Arrospidekan kanako egun bat zutikako eran ebakiko du; jarraian Hernaniko bertsolarietako poteoa animatuko dute; 14:00etan bazkaria; ondoren, ume jolasak eta toka txapelketa; jarraian saskiaren zozketa egingo dute; iluntzean *Santuipekoen* kontzertua izango da; 21:00etan azeria egingo dute; eta ondoren, garagardo eta mojiotako egongo dira jaiak bukatzeko.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Def Con Dos taldearen kontzertua gaur, 22:30ean Bonberenean. Bihar berriz, Su ta Gar ariko da ordu berean.

ZINEMA

■ **Tolosa.** *El arbol de la vida*

bihar, 22:30ean Leidorren. Igandean 17:00etan *Hiru mosketa-riak* haurrentzako filma euskaraz, eta *Como acabar con tu jefe* 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean, ikuslearen eguna, ere azken film hau eskainiko dute 20:30ean.

■ **Villabona.** *Lo contrario al amor* bihar 19:30ean eta 22:15ean, eta igandean 19:30ean. Astelehenean, ikuslearen eguna, 21:30ean ikusi ahal izango da filma. Igandean *Los Pitufos* haurrentzako filma ere eskainiko dute 16:30ean.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Box.a arte elkarteak eta Gko galeriak antolatutako *Makina - Tu* erakusketak ikusi daitezke Aranburu jauregian azaroren 5a arte.

■ **Tolosa.** Arketal konpainia frantsesaren 150 lan biltzen dituen erakusketak bisitatu daitezke Topic zentroan otsailaren 12a arte.

■ **Alegia.** Garbiñe Balerdiren margolanak ikusi daitezke hila-betea bukatu arte jubilatuen tabernan.

Programazioa

28 KANALA

■ **08:30.** Berbaz. ■ **09:15.** Foo-fur. ■ **09:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **10:00.** Kafe t'ardi. ■ **10:30.** Gipuzkoako kultura. ■ **11:00.** Bizitegia. ■ **11:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **12:00.** Estetika. ■ **12:30.** BIT. ■ **13:00.** Amaigabeko istorioa. ■ **13:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **14:00.** Kafe t'ardi. ■ **14:30.** Gipuzkoako kultura. ■ **15:00.** Bizitegia. ■ **15:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **16:00.** Estetika. ■ **16:30.** BIT. ■ **17:00.** Foo-fur. ■ **17:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **18:00.** 28 Klip. ■ **18:30-19:30.** Tertulia. ■ **19:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **20:00.** Ikusmira.

TXOLARRE IRRATIA (107,6)

■ **11:00-13:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia eta magazina. ■ **13:00.** Lehiaketa. ■ **13:30.** Info 7ko albistegia. ■ **14:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia. ■ **16:00.** Itzali. ■ **16:30.** Txapa. ■ **17:00.** Kabitik plazara. ■ **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina eta albistegia. ■ **20:00.** Info 7ko albistegia. ■ **20:30.** Zuria Beltzez. ■ **21:30.** Hala Bedi.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 6736 49.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112. ■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agurak



Garazi Zabala Martinez (Tolosa).
Gaur 6 urte. Zorionak eta ondo pasa eguna Oneka, Galder eta etxearen partetik.



Urte askoan!
Inhar Bordagarai Goenaga (Irura).
Bihar urtebete. Zorionak etxearen partetik.

CITROËN C4 BERRIA
POSITIVE POWER

jarrai gaitzazu:

PLAN REMOVE + CITROËN
HILABETE HONETAN
JASO ITZAZU

3.000 €

ZURE IBILGAILU ZAHARRARENGATIK.*



CREATIVE TECHNOLOGIE